

Txostena, foru agindu baten proiektua prestatzeko aldez aurreko kontsulta publikoan parte hartzeari buruzkoa. Foru agindu horren bidez arautuko dira Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean diren ikastetxeetan Lehen Hezkuntzako etapari dagozkion irakaskuntzen ezarpena eta ordutegia.

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legeak 13. artikulua j) apartatuan dioenez, edozein herritarrek behar den denborarekin eskuratu ahalko du herritarren parte-hartzea izanen duten proposamenei buruzko informazioa, egiaz eta eraginkortasunez parte hartzearen planen, programen eta parte-hartzearen menpe jartzen diren beste proposamen batzuen diseinuan, prestaketan, aldaketan, berrikuspenean eta ebaluazioan. Agindu hori betez, proposatzen den foru dekretu hau prestatzen hasi zela adierazi zen Gobernu Irekiaren web-orrian.

Foru aginduaren proiektua egin aurreko kontsulta publikoa jendaurrean jarri da urtarrilaren 18tik otsailaren 7ra bitartean. Alegazioetarako gaitu den bidea posta elektronikoa izan da: soieduca@navarra.es. Interesdunaren nortasuna jaso da.

Jendaurrean egon denean, hiru alegazio jaso dira:

1. Nafarroako Kirol Hezitzaile Fisikoen Elkargoak egindako alegazioa. Aipatutako alegazioan proposatutakoa baloratuko da aldez aurreko kontsulta publikoaren xede izan den foru aginduaren artikulua prestatzen direnean.
2. 1. alegazio partikularra (ordutegi jarraituaren aldeko posizionamendua). Aipatutako alegazioan proposatutakoa ez da kontuan izanen ez baitio eragiten aldez aurreko kontsulta publikoaren xede den arauari (Irakaskuntzen ezarpena eta ordutegia arautzen dituen foru agindua).
3. 2. alegazio partikularra (ordutegi jarraituaren kontrako posizionamendua). Aipatutako alegazioan proposatutakoa ez da kontuan izanen ez baitio eragiten aldez aurreko kontsulta publikoaren xede den arauari (Irakaskuntzen ezarpena eta ordutegia arautzen dituen foru agindua).

"Aldez aurreko kontsulta publikoa" txosteneko edukia, zeina fitxari erantsi baitzaio, ez da eragozpena izan alegazioak egiteko unean, kontsultaren xedea zein zen aski garbi baitzegoen aipatutako fitxaren izenburuan: "Txostena, foru agindu baten proiektua prestatzeko aldez aurreko kontsulta publikoan parte hartzeari buruzkoa. Foru agindu

horren bidez arautuko dira Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean diren ikastetxeetan Lehen Hezkuntzako etapari dagozkion irakaskuntzen ezarpena eta ordutegia".

Iruñean, 2022ko otsailaren 14an. Antolamendu, Prestakuntza eta Kalitate Zerbitzuko zuzendaria, Pablo Arriazu Amat.

(Sinadura jatorrizkoan dago)